



OARSO 2024.
Artikuluak aurkezteko arauak

Lanak argitaragabeak izango dira; beraz, ezin dira aurretik argitaratuak izan ez osorik ez zatika.

Onartutako hizkuntzak euskara eta gaztelania dira. Artikuluak hizkuntza batean edo bietan idatz daitezke, baina edukia bikoiztu gabe, hau da, ez da testu beraren bertsio elebidunik argitaratuko.

Jatorrizkoak euskarri informatikoan aurkeztu behar dira Libre Office, Open Office edo Microsoft Office programetako testu formatuan edo horrekin bateragarria den formatuan (doc, .docx, .odt.), Times New Roman 12 neurriko letran, bat eta erdiko lerroartearekin, orga itzultze bakarra dela paragrafo artean eta 2,5 cm-ko marjina duela ezker, eskuin, goi eta behe aldeetan.

Argitaratzea errazteko, lan bakoitzerako gomendatutako gehieneko luzera 3.000 hitzekoa izango da, edo horren gutxi gorabeherako baliokidea: 7 orrialde DIN A4 tamainako paperean. Ahal dela, gutxienez irudi batekin ilustratu beharko da.

Grafiko, irudi eta taulak testuan kokatu behar dira, eta mezuan edo aurkezten den euskarrian ere jarri beharko dira, aparteko artxiboetan eta TIF edo JPG formatuetan, gutxienez 300 ppp-ko bereizmenarekin. Irudi bakoitzak jasoko ditu egilearen datuak eta egileak bere obra argitaratzeko emandako baimena. Horretaz gain, irudi bakoitzari dagokion oina jarriko zaio.

Lanak Errenteriako Udal artxibora bidaliko dira (Herriko plaza, z/g) edo posta elektronikoko bidez oarso@errenteria.eus helbidera. Horretaz gain, ZU! Arreta zerbitzuan edota Udal artxiboan ere utz daitezke.

OARSO 2024.
Normas para la presentación de artículos

Los trabajos serán inéditos, por lo que no habrán sido publicados total ni parcialmente.

Los idiomas aceptados son euskera y castellano. Los artículos podrán escribirse en uno o ambos idiomas pero sin duplicar el contenido, esto es, no se publicarán versiones bilingües del mismo texto.

Los originales deberán presentarse en soporte informático en formato texto de los programas Libre Office, Open Office, Office o formato compatible (doc, .docx, .odt.), tipo de letra Times New Roman, cuerpo 12, interlineado de 1,5, un retorno entre párrafos y con los márgenes izquierdo, derecho, superior e inferior de 2,5 cm.

Para facilitar su publicación, la extensión máxima recomendada para cada trabajo será de 3.000 palabras, o su equivalente aproximado: 7 páginas en papel tamaño DIN A4. A ser posible, estará ilustrado con al menos una imagen.

Los gráficos, imágenes y tablas se deben localizar en el texto, y deberán ser incluidos adicionalmente en el mensaje de correo o soporte que se entregue, en archivos separados y en formato TIF o JPG con una resolución mínima de 300 ppp. Cada ilustración contará con los datos de autoría y permiso previo para su publicación; además, irá acompañada de su respectivo pie.

Los trabajos deberán ser remitidos al Archivo municipal de Errenteria (Herriko plaza s/n) o por correo electrónico a la dirección oarso@errenteria.eus. También pueden ser entregados directamente en el ZU! Arreta zerbitzua o en el Archivo municipal.



Lanak entregatzeko azken eguna 2024ko maiatzaren 1a da. Egun horren ondoren ez da lanik onartuko.

La fecha tope de entrega de los originales es el 1 de mayo de 2024. No se admitirá ningún trabajo después de la fecha indicada.

Lanak jaso direla ziurtatuko zaio bidaltzaileari aurkezteko erabilitako modu bera baliatuta. Lana jaso izanaren egiaztapena bidaltzeak ez du berez adierazten artikulua argitaratuko denik; izan ere, lanak onartzeko eskumena Idazketa Batzordearena da.

La recepción de los trabajos se confirmará mediante el mismo medio empleado para el envío. La confirmación de recepción no supone la publicación del artículo en sí, ya que la aceptación de los trabajos queda a juicio discrecional del Comité de Redacción.

Egileak lana bidaltzeak eta Erredakzio Batzordeak onartzeak berekin ekarriko du artikulua eta haren ilustrazioak Creative Commons BY-NC-SA formatu irekian argitaratzeko lagapena: Aitorpena – Ez Komertziala – Partekatu Berdin 3.0. DA non:

La remisión del trabajo por parte de la autora/del autor y su aceptación por el Comité de Redacción, supondrá la cesión para la publicación del artículo y sus ilustraciones en los diversos soportes de la revista en formato abierto Creative Commons BY-NC-SA: Reconocimiento – No Comercial -Compartir Igual 3.0. ES donde:

Aitortza: argitalpen hau erabiltzen den guztietan (sarbide librean eskuragarri), datu hauek eman beharko dira: egilearen izen-abizenak, argitalpenaren jatorrizko izenburua, argitalpenaren identifikazio-zenbakia (ISBN/ISSN) eta argitalpenaren lizentzia-mota

Reconocimiento: cualquier uso que se haga de esta publicación (disponible en libre acceso) deberá incluir los siguientes datos: nombre y apellidos del/de la autor/a, título original de la publicación, número identificativo de la misma (ISBN/ISSN) y la mención al tipo de licencia abierta bajo la que se publica.

Ez komertziala: argitalpen honen edukia ezin da helburu komertzialearako erabili.

No comercial: el contenido de esta publicación no puede utilizarse para fines comerciales.

Partekatu lizentzia berarekin: argitalpen hau aldatzen edo eraldatzen bada, edo obra eratorri bat sortzen bada, sortutako obra Creative Commons lizentzia berdinarenean banatu beharko da.

Compartir bajo la misma licencia: si se altera o transforma la presente publicación, o se genera una obra derivada, la obra generada deberá ser distribuida bajo una licencia Creative Commons idéntica a ésta.

Egileei lehen inprimatze probak bidaliko zaizkie posta elektronikoz (adierazi dutenei), eta 2 eguneko epea izango dute proba horiek itzultzeko, antzemandako forma edo eduki akatsak jakinarazita (beste aldaketa-motarik ez da onartuko).

Las primeras pruebas de imprenta se remitirán a las/os autoras/es por correo electrónico (a quien nos lo haya facilitado), quienes dispondrán de un plazo de 2 días para devolverlas notificando las erratas de forma o contenido detectadas (no se aceptará otro tipo de modificaciones).



Lana argitaratzeak arau hauek onartzea dakar.

La publicación del trabajo supone la aceptación de estas normas.

Argibide gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan oarso@errenteria.eus helbidean edo 943 449610 – 943 449626 telefono zenbakietan.

Para más información puedes dirigir tus preguntas al correo electrónico oarso@errenteria.eus o a los teléfonos 943 449610 – 943 449626.

Parte-hartzaileen harremanetarako datuak Oarsoren banaketa-zerrendan sartuko dira.

Los datos de contacto de las/os colaboradoras/es serán incluidos en la lista de distribución de *Oarso*.

DATUEN BABESA. Datu pertsonalak babestearen inguruan indarrean dauden araei jarraiki, hau adierazten dizugu: jasotako datuak egiaztatu edo osatu ahal izango dira beste administrazio publiko batzuei kontsulta eginda. Datuok Udalak tratatuko ditu bere eskuduntzen arabera eginkizunak eta zerbitzuak aurrera eramateko. Udalak zure datuak legearen arabera tratatuko ditu, beharrezko segurtasun neurriak hartuz eta hirugarrenei lagapenak legeak aurreikusitako kasuetan bakarrik burutuz. Informazio gehiagorako kontsultatu gure pribatutasun politika: [Pribatutasun politika – Errenteriako Udala](#). Era berean, jakinarazten dizugu datuak atzitu, zuzendu, ezereztu, berauen aurka agertu, tratamendua mugatu eta datuen eramangarritasunari buruz dagozkizun eskubideak baliatzeko aukera duzula, idatziz, telematikoki, aurrez aurre edo posta arruntaz Udalera zuzenduz; Herriko Plaza z/g 20100 Errenteria. Azkenik, beste pertsona fisiko batzuen datuak helarazten baldin badituzu, pertsona horiei aurreko guztiaren berri eman beharko diezu.

Protección de datos. De acuerdo con la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal, le indicamos que los datos recogidos podrán ser verificados o completados mediante consulta a otras administraciones públicas. Estos datos serán tratados por el Ayuntamiento para el desarrollo de sus funciones y servicios de acuerdo con sus competencias. El Ayuntamiento tratará sus datos de acuerdo con la ley, adoptando las medidas de seguridad necesarias y realizando las cesiones a terceros únicamente en los casos previstos por la ley. Para más información, consulte nuestra política de privacidad [Política de privacidad – Errenteriako Udala](#). Asimismo, le informamos que puede acceder, rectificar, cancelar, oponerse, restringir el tratamiento y ejercer sus derechos sobre la portabilidad de los datos, por escrito, telemáticamente, presencialmente o por correo ordinario dirigiéndose al Ayuntamiento; Herriko Plaza z/g 20100 Errenteria. Por último, si transmite datos de otras personas físicas deberá informarles de todo lo anterior.